

## **BA AL DAGO GKE-RIK NIRE INGURUAN?**

### **1.- Deskribapena**

Erakunde bakoitza dagokion ekintzarekin lotzean datza.

### **2.- Helburuak**

- Inguruko GKEak eta egiten dituzten ekintzak ezagutzea.

### **3.- Partaideak**

Kopuru mugagabea.

Adina: 12 urtetik aurrera.

### **4.- Materiala**

Auzoko edo ingurune hurbileko GKEen izenak jasotzen dituen txartel-sorta bat eta bakoitzak egiten dituen ekintzak azaltzen diren beste bat.

### **5.- Abiapuntuko arauak**

1. Talde txikia.

2. Talde handia.

**Galderen bidez gidatutako eztabaida.**

### **6.- Garapena**

Dinamizatzaileak herriko edo ingurune hurbileko 10 GKE aukeratuko ditu. Talde txikitik banaturik, haurrek erakunde bakoitza dagokion ekintzarekin lotu beharko dute. Ondoren, talde bakoitzak bere erantzunak azalduko ditu.

Azkenik, haurrei GKEen eta beste erakunde batzuen zerrenda bat banatuko zaie, Giza Eskubideen zein alorretan lan egiten duten zehazten duena, eta erakunde horiei buruzko eztabaida egingo dute.

### **7.- Ebaluazioa**

Erakunde horietatik ba al dakizue zeintzuk dauden gobernuen menpe, eta zeintzuk ez?

Gobernuen menpe ez dauden erakundeei gobernu kanpoko erakundeak deitzen zaie, edo GKE. Hainbat herrialdeetako gobernuen arteko hitzarmenetatik sortutako nazioarteko erakundeei, berriz, Gobernuarteko Erakundeak deitzen zaie, edo GE.

Zerrendan azaltzen ez den erakunderen bat ezagutzen al duzue? Giza Eskubideen zein alorretan egiten du lan? GKE bat da, edo GE bat?

Ba al zenekiten giza eskubideen aldeko hainbeste erakunde zeudenik? Zein iritzi duzue horri buruz?

Giza eskubideak modu askotan urratzen direnez, erakunde bakoitzak eremu zehatz batean egiten du lan. Aipatuta zerrendan azaltzen ez den giza eskubideen alorren bat.

Erakunde horietatik zein iruditu zaizue interesgarriena? Zergatik?

### **8.- Iturria**

BAKEOLA. Bitartekaritza eta Gatazken Konponbiderako Zerbitzua. EDE Fundazioa. Bilbo. 2004.